

2018ko apirilaren 25ean ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 1

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK : Asier Ibarguren
Arkaitz Iruretagoiena
Igor Iturain
Sergio Cubero
Mariaje Arruabarrena
Aitor Arregi
Kontxi Lazkano
Hodeiza Sallen ,Eñaut Guruzeaga eta Jon Ander Azpiroz

ez dira bertaratu.

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2017ko abenduaren 20an eginiko Udalbatzarraren Akta ontzat emanda denen aldetik.

2.- “Alde historikoaren birgaipenerako Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala (UM I-ko UE I.3 eta UE I.5)”

“Alde historikoaren birgaipenerako Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala (UM I-ko UE I.3 eta UE I.5)” dokumentua onartu zuen udalbatzar honek 2017ko abenduaren 20an. Ondoren Foru Aldundiak , 2018ko martxoaren 15eko Foru Agindu bidez erabaki zuen , Birgaitze Integratutako Area barnean , sustapen publikoa ezinbestekoa izanik, dokumentuari behin betiko onarpena ez ematea.

Egoera horren aurrean udalbatzar honek , kontuan hartuta Plan Bereziaren Aldaketa Puntual hau interes publikoan oinarrituta dagoela , berea egiten du dokumentuak jasotzen duen edukia.

Dokumentu horren xedea da fitxetan agertzen diren akats batzuk zuzentzea eta ondoren jasotzen diren aldaketak eta argiketak egitea:

- El límite de parcela, en las fichas, no se corresponde en la planta baja y en las plantas altas, por lo que se va a regularizar el límite de parcela. Las superficies señaladas no se corresponden con el topográfico actual de la zona, por lo que se van a adecuar a lo existente.
- En la ficha UE I-5, para casos de ampliación, no se define el nº de viviendas. Lógicamente sería el número máximo de viviendas que puedan construirse cumpliendo el resto de condicionantes señalados en las ordenanzas de habitabilidad. (En este caso las de viviendas de protección oficial, por ser las de aplicación según las normas subsidiarias de Aia).
Para que no queden dudas al respecto, se quiere dejar escrito que el número de viviendas permitido es de 7 en casos de ampliación y nueva planta y que es un uso permitido en planta baja.
- Permitir la agrupación de parcelas, para que puedan tener un portal, escaleras y ascensor común y dotar así de accesibilidad a la UE I-3, Gozategi enparantza 6.
- La altura bajo alero se subirá a 10,50m., por ser las alturas calculadas para cada planta demasiado justas con las condiciones de habitabilidad exigidos actualmente por las normativas en vigor.
- Los alzados grafiados en el estado propuesto de la UE I-5, no cumplen la normativa del PERCH en lo referente a balcones en planta primera, por lo que se grafiará la nueva propuesta con cumplimiento de la normativa.

Alkatearen proposamena botatu eta aldeko 6 boturekin,(2 abstentzio) hartu da ondorengo akordioa:

- 1.- Behin-behineko onarpena ematea , 2018ko martxoko data duen “Alde historikoaren birgaipenerako Plan Bereziaren Aldaketa Puntuala (UM I-ko UE I.3 eta UE I.5)” dokumentuari.**
- 2.- Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman dezaion.**
- 3.- Jendeaurrean jartzea 20 eguneko epean.**

5.- Eskari-galderak

Ez da izan ez eskari, ez eta galderarik.

Bilera, 19,40tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, Idazkariak hau ematen du, Aian 2018ko apirilaren 25ean.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK